

JOSEBA JAKARI

## KOLABORAZIOAK

Joxe Manuel ODRIOZOLA / Euskara irakaslea

## Esanak eta izanak

**A**ZKENEAN, zerbaite behar eta, itsaso ahaltsuak hartu dio neurria herri-zerbitzuan zein hurbil-hurbilenganako eskaintzan mugarik ez zuten gizon aspergaitzari. Lan ixil asko da egina. Irribarreza ezpainetan, zalapartarik ez mingainean, unean uneko euskal kulturaren beharrak non, han egon dira Joseba Jakaren bihotza eta burua. Azkenaldi honetan sortutako kultur proiektu gehienetan Joseba Jakaren izenarekin baino gehiago, eta hau da garrantzitsuen, haren obra zehatzekin aurkitzen gara» (Paulo Iztueta).

«**Utzizina, Usainena, Ezagutza** eta esperientzia. Keinu batean nabaritzen genion proposatutako proiektuak etorkizunik ba ote zuten. Langile nekagabea. Maratoilaria. Luzarora begira urrats txiki aurrera egiten zuena. Aurrera bultzatzen zuena. Bultzatzailea. Aitz-gorripian hazi eta euskal kulturentzat azpiegiturak eraikitzea zuten xedea. Euskal Kulturaren Aizkorria» (Joan Mari Torrealdeai, Inaki Uribe).

«Lanaren euforiak mantentzen zuten forman. New Yorkeko *broker* bati diruaren kotizazioak hainbat adrenalina sortzen zion euskararen gorabeherak. Bost edo sei orduko loa aski zuten eta ez zekien opor egiten. Bartzelonara edo Madrilerla bidean, autoan 140an jarri eta telefonoz gestioak egin eta agindua emanez egiten zituen orduak, edo Pirinioetako gailurretatik lanerako zitak jartzen zituen. Euskal kulturak duen enpresarik handienetakoa zeraman bere gain, baina "gu" plural batekin mintzo zen beti. Arrioriak baino lehenengo ikasia baitzuten giza baliabideak optimizatzen eta taldean lan egiten» (Joxean Agirre).

«Lehenik, bizi izan eta praktikara eramandako balio etikoak gogoraziko nituzke: lana, irabazteko asmoz baino sorketa eta zerbitzu-grinaz bizitzea;

lankide eta lantaldeekiko ulerpen, egon-narri eta balioespen leial eta praktikoak; gizarteko lehian, zalduntasunduintasuna ez galtzea; unean uneko arrakasta, hurrengo zerbitzu hobe edo berri baten esanetara makurraraztea; aurrera-gogo guztiak, azken finean, kultura nazional ahul baten beharren eskakizunetara jartzea. Zalantzarik gabe diot: eredu sozial bat da hori, nahi duenak aintzakotzat har dezan» (Joseba Intxausti).

«Elkar ezagutu genuen lehen egunetik elkarrekin egon garen azken egunerarte erriore bera, su eta kemen bera, zintotasuna bera erakutsi dizkiguk. Beti euskal kulturaren etorkizunarekin amesten eta borrokatzen jarraitzen huen» (Maite Idirin, Jokin Apalategi).

«Fama txarra zuen Jakak toki bultzatzen. Diruzalearena. Adibidez, joan Nafarroa Oinez-era eta han bera bere anaiekin, liburu saltzen. «Orain ere ari dituk hauek, dirua egiten», pentsatuko zuten baten batek. Bat horrek ez daki, ordea, euskal kultura idatziaren presentzia azpimarratzeko egiten zutela, jaiaren folklorismoan ez errotzeko, eta salmentara hartako irabazi guzti-guztiak ikastola antolatzaileei ematen zizkiela beti. Fama txar horren atzean herri honen konplexu zikin bat dago: porrotaren lilura; zuk egundoko proiektu polita duzu, pott egiten duzu, eta beti esango dute: "hura bai ederra, atera balitz". Asmatzen haduzu, berriz, berehala hasiko dira kritikak.

*Guk hitz egiten genuen bitartean, hik hitzak obra sendo eta oparoak bihurtzen*

Jakak ere asmatu egin zuen; buru-bihotzez saiatu eta arrakasta lortu zuen helburutzat hartutako ekintza gehienetan» (Xabier Mendiguren Elizegi).

«Itxurakeria eta egoismoa nagusi diren garaioan, hi umila eta leiala hintzen. Gogoan diat nolako enbarrak egiten zian komunikabideetan azaldu beharrak. Ahal bahuen, ihes egiten huen. Nahiago huen proiektu berriak sustatzea eta sendotzea». (J. Inaki Etxezarreta).

«Lagunen lagun min, areririk ez du falta izan. Jakin ondo jakin duelako zabalatasunez jokatzearrekin batera printzipioen irimotasuna defendatu behar dela. Duintasunez defendatu ere. Euskarra maite zuten, herria maite zuten... eta. Herri honetaz independentzia nahi zuten. Oso argi. Lekuko naiz. 1974.ean. ETAREN zatiketan jarri gara garbia hartu zuen eta Belokeko bikurran izan zen urte hartako irailaren hasieran, behin eta berriro kulturentzari egoera politikoa berria leku egokia ziurtatu nahirik» (Jesus Mari Larrazabal).

«Dicese de él que era un águila para los negocios; un toro para el trabajo; una caparra para la competencia; una hormiga para levantar, libro a libro, un pequeño imperio —todo en Vasconia es pequeño— al servicio de la cultura vasca. Hora es de que se le reconozca en público otros valores. Mejor dicho, los verdaderos valores en los que sustentaba todo lo anterior. Porque nunca engaño su apariencia de

empresario enfebrecido por miles de quehaceres. El tiempo fue confirmando que en sus cuentas y cálculos le pesaba el corazón más de lo que aparentaba, y que conforme le exponías alguna nueva embacada él iba contabilizando tu grado de entusiasmo, tu porcentaje de ilusión: tu banco de desinterés... Y luego hacía los números. Por eso con algunos valores en mano era fácil negociar con él: euskera, Nafarroa... Aquello que tocaba su fibra abertzale. Para eso estaba, por encima de todo» (Jose Mari Esparza).

«Zergatik egon behar izaten duغو beti norbait hil arte, isil-isilik zenbat estimatzen genuen esaten ausartzeko? Nola miresten genuen, maitatzen genuen. (Eta zergatik da hain zaila euskaldunontzat, maite dugula, inori esatea?). Eta orduan berandu egin da denontzat ezer esaten hasteko, esatekoen garaia pasa eta gero. Zerbait zeukan Josebaren aurpegi jakatarrak. Ez dakit. (Galdera bat zirudien begien mugimendu txiki batekin begiratzen zizun, bab-batean urrundik gertu gertura bere pentsamenduetan bere pertsona osoa etorri). Barrutasun sakon bat bezala. Gogortasun delikatu bat, kemen isila, bere erroetan menperazien tinko. Irribarretsu jakinmin eta bilatzaile hala ere. Mendiko harri bigun bat bezala» (Joxe Azurmendi).

Anaien lankidetzeta leiala hasieran, gainerako lankide guztien onespenera gero, familiaren habia bero beti; horra hire ibilbidearen begia. Mari Jose-rekin egindako mendi hegalek eta gailurrak ezin dituk hire egiatik bereizi: mendiko hegiak euskalgintzaren egia bihurtu hituen hire berezko lan-senari esker. Hire izaera baikorren handiak gure ideien txikia salatu dik beti. Guk hitz egiten genuen bitartean, hik hitzak obra sendo eta oparoak bihurtzen.

Paulo AGIRREBALTZATEGI / Idazlea

## Urtebete geroago

*Lanean ari duk, eta lehen fruituak ematen hasia*

«Euskararen Unibertsoa» izena hartu zian mugimenduak, sortzean. Haurdunaldi luzea eta neketsua izan dik; baina sendo eta indartsu jaio duk. Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilu bihurtuko duk gutxi barru.

Euskarazko entziklopedien eremua artean basamortua zenean, gauza izan hintzean oasian amets egiteko. Eta ametsa proiektu eta proiektua enpresa bihurtzeko, zenbait erakunde elkartu eta bateratzeko ahalegin guztiak ipini hituen. Lanean hasi orduko gorabeherak ere gertatu hituen tartean, badakik. Baina ahaleginak eta nekeak ez dituk alferrikakoak izan. Euskarazko entziklopedigintzaren alorrak urrats garrantzizkoak egin dizkik 1988tik hooa.

Urte hartako udako ilunabar hartan paper xume baten gain izan genian el-karrizketa, hire etxe azpiko Tendido-7 tabernan; amets egiteko aitak izan huen lehen zirriborro hura. Erraza izan huen, bestalde, euskal kulturaren entziklopedigintzaren ildo irekitzeak zuen garrantziaz eta asmoaren etorkizunari buruz sintonia lortzea. Denboraldi batez egosten utzi genian gaia. Handik hilabete gutxira Palestinan —Israelen— gertatu gintuan elka-

rrekin, hara bisitatz joan hintzanean. Ordurako egosia huen hik asmoa heure aldetik; eta seguruenik eginak hituen heure kalkulak, eta hasia hintzen ideia finkatzen.

Israello edizio eta liburu-munduan berri jakiteko grinaz baterik joan hintzean hara; galderaz gainezka. Bertako Steimaski liburu-denden kate handiaren «ereduz» gogoetatsu geratu hintzeala uste diat. Entziklopedi etxe bat ere bisitatu genian elkarrekin Tel Aviv-en, gogoan duk. Egun gutxi izan hituen hireak Israelen; baina ondoren inkestakot bat zabaldu nahi izan huen, idatziz Israello liburugintzako zenbait enpresaren artean. Heure ondorioak atreak hituen seguruenik; eta haiek praktikara eramateko edo, berriro iazko udan Israelera joateko hintzean hilabeterako. Ingelesa ikasteko aitzakitan... Denok irribarre egiten genian, ondotxo sumatzen baikenuen hire benetako asmoa hango liburugintzaren mundua hurbilagotik ezagutu eta horrekin harremanak lotzea zela. Jerusalem bizi-lekuari eta ingelesko eskolari buruzko gestioak eginak zeudelarik, atzera jo huen... bai zera! aurreragi jo huen.

1989ko azken aldean Eusenor proiektua lantzeari ekin genionetik,

euskarazko entziklopedigintzaren panorama aldatua duk zinez. «Gazteen Entziklopedia» (Eusenor-ena), «Lur Hiztegi Entziklopedikoa», «El-huyar-en, «Hiztegi Entziklopedikoa», Harluxet Fundazioaren «Euskal Hiztegi Entziklopedikoa». Lau entziklopedia berri, orokor-unibertsalak laiak, alfabetikoak laiak. Ez dik kontu handirik zein kaleratu zen horietan lehenengo eta zein geroago. Euskarazko entziklopedigintzaren baterako —ez bab-bateko— lortatzeko pozgarriaren eragile nagusi eta testigu bizioren izan hintzen hi heu. Eta baterako ezziik, baterakoi ere izanez gero proiektu ezberdinak, mesedegarri eta aberasgarritzat hartzen huen hik euskal kulturagintzaren barruan elkarrekin hobia.

Geroztik zabaldu egin duk lehia hori. Beste hiru entziklopedia mardul dituk abiatuak euskaraz, orainoan hurrak gaikakoak; unibertsalak, baina Euskal Herriarekiko lotura ere egin nahian polabait. «Planeta», «Vox», «Lur» dituk horien izenak. Arbolak ugartzen ari dituk basamortu latzean. Baina lur berriak zeudek lantzeko, eta bide berriak irekitzeko. Ez dituk abaztu, jakina, orduan ipinitako helburuak: baldintzak aldatuta eta baliabide berrietan tinko jarraitzen diate horiek. Oraindik ez diagu oasia eratu, Joseba, are gutxiago basamortua irabazi; baina lehen arbolak indartzen ari dituk.

Tendido-7 tabernak zabalik jarraitzen dik. Meretz izan zian euskarazko entziklopedien eremuko ametsak eta asmoak proiektu eta enpresa bihurtzen saiatzek. Ez adiorik, Joseba.

**A**GUR, Joseba. Urtebete duk joan hintzela. Latza izan huen astindua: etxeokentzat, lankideentzat, lagunentzat eta euskalgintzako jende guztiarentzat. Beunde eta Aizkorri izan hituen lekuko. Baina berehala jabetu huen hemen jendea, aurrera begiratu beharra zegoela, heuk begiratzen huen bezala. Eta horretaz jabeturik hartu zizkiaten hire lankideek beren eskuetan hirekin batera eraikitako eta bideraturiko enpresak. Hirekin amesturiko ametsak eta hirekin diseinatutako proiektuak gauzatzen jardun dituk hire lagunak, jo ta ke. Horietako batzuk oraindik burutzeko zeudek seguruenik. Hireganditik harturiko kemenaz eta ikasitako temaz, helburura eramango dizkiate.

Fundazioa eraikitzeko proiektua egin huen, heure lagunekin batera, euskal kulturagintzaren aldekoa. Eratua zegok Euskalgintza Elkarlanean Fundazioa. Lanean ari duk, eta lehen fruituak ematen hasia. Elkar-reko hire lankideak eta lagunak leialak izan dituk.

Talde-lana bultzatu huen etengabe heure jardunean, eta euskalgintzako elkarte eta sektore sozialen koordinazioa bilatu. 1995eko abendu hartan «Egunkaria Sortzen»-eko bileran bide horretatik urrats berria egieta erabaki zenean, hantxe hengoan hi indarrez bultzatzaileko. Eta «Miramar 1» deitu izan dugun lehen bilera hartan erne eta adi egon hintzen; otsailean izan huen hura. Gero Miramar 2an huts egin huen... Maitatzean izan huen hori, eta tartean itsasoko urek eraman hinduten.